



## Pinturaren esperientziatik abiatutako arte praktikarako lantegia

Koordinatzailea: Iñaki Imaz

2005eko uztailaren 4tik irailaren 30era

Arteleku, Donostia



### Aurkezpena

“Ezer adierazi nahi ez izateak badu erabat iraultzailea den zerbait”.  
Régis Debray

Lantegiaren oinarrizko ideia harreman berriak esperimentatzeko denbora eta toki gisa planteatzea da, eginkizun artistikoaren mugak kontuan izanik betiere. Lantegiaren izenak berak, *Lupa eta Imana*, aurre-jarrera energetiko subjektibo bi ekarri nahi dizkigu gogora: *optikarako joera* batetik eta *elektronikarako joera*, bestetik, muga horietarako aukera-baldintzak baitira.

Gure ustez, norbanakoen adierazpen beharretatik haratago, murrizpenen (auto)ezarpenak teknikaren garapen *erreal*a ahalbidetzen du; hori da gure abiapuntua. Gaur egungo arte jardunean pintura (auto)mugaketa eta (auto)errepresiorako aukera horietakotzat jotzen dugu; eta paradoxikoki, horrek askatasun, adierazkortasun eta eraginkortasun maila altuago batera eraman gaitzake. Pintura *legearen* mendean jartzea, beraz, bakar-bakarrik laborategi experimental gisa planteatzen da, eta *errepresio gogoko*en gisa, aukera sorta zabalago baten barnean; aukera horiek ere egia bihur daitezke, partaideen eta gonbidatuen interesen arabera.

Lantegiaren hasieran koordinatzaileak azalpen teoriko batzuk emango ditu eta hamabost egunez bakarka lan egin ondoren, gonbidatutako artistak bi astean behin joango dira partaide bakoitzak egindakoari eragozpenak eta murrizketak proposatzera. Partaideek onartu egin beharko dute joko hori eta aldi baterako uko egin beharko diote autoretzari eta proposatutako jarraibideen arabera lan egin beharko dute, hain zuzen, artista gonbidatuek pertsonifikatzen duten *inkontzientea* tarteko nor bere teknika lantzeko.

Lantegia arte jardunean modu bateko edo besteko eskarmentua duen edozein lagunentzat da, baldin eta prest badago jolasteko, bere espresio desirak gerorako uzteko eta bere kontzientzia lasaitzeko, koordinatzaile eta gonbidatuengan jarriz, aldi baterako konfidantza.

### Gonbidatuak

**JOSÉ RAMÓN AMONDARAIN** (Donostia, 1964)  
Donostian bizi da. Estatuko zein Europako hainbat tokitako galeria eta erakundeetan jarri ditu bere lanak ikusgai.

**MIKEL BERGARA** (Irun, 1965)  
Coruñan bizi da. Erakusketak: Altxerri galeria (2001), Trinta galeria, Santiago (2005) proiektua prestatzen.

**LUIS CANDAUDAP** (Bilbao, 1964)  
Bilbon bizi da. Pintura irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean 1998 eta 2003 bitartean, eta gaur egun. Azken erakusketak (2005): Manuel Lumbreras galeria, Bilbo.

**GEMA INTXAUSTI** (Gernika, 1966)  
Londresen bizi da. Zinea ikasten ari da *Surrey Institute of Art and Design* eskolan. Erakusketak: *Gaur, Hemen, Orain* (Bilbo, 2001).

**PELLO MITXELENA** (Oiartzun, 1963)  
Eskultura irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean. Artista modura 80-90 hamarkada aldaketan egin zen ezaguna. Duela urte batzuetatik diziplinetatik kanpo dauden praktika estetikoetara jo du bere lanekin.

**GORKA EIZAGIRRE** (Donostia, 1971)  
Bilbon bizi da. Diseinu eta argazkigintzan ari da batez ere. Argazki liburu bat prestatzen ari da.

**IÑAKI RODRIGUEZ** (Donostia, 1969)  
Donostian bizi da. Gaur egun diseinu grafikoan eta web orriak egiten aritzen da batez ere. *LaVidak.org* sortu zuen Iñaki Imazekin batera.

**JUAN PÉREZ AGIRREGOIKOA** (Donostia, 1963)  
Parisen bizi da. Azken erakusketak (2005): NIFCA, Populism. Contemporary Art Centre in Vilnius. Stedelijk Museum, Amsterdam. Frankfurter Kunstverein, Frankfurt.

### Koordinatzailea

**IÑAKI IMAZ** (Donostia, 1965)  
Donostian bizi da. Pintura irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean. Azken erakusketak (2004): *Montaña*, Egia Kultur Etxea, Donostia.



## Pinturaren esperientziatik abiatutako arte praktikarako lantegia

Koordinatzailea: Iñaki Imaz

2005eko uztailaren 4tik irailaren 30era

### Izena ematea

Lantegian parte hartu nahi dutenek honekin batera doan izena emateko orria bete eta Artelekun bertan aurkeztu beharko dute **2005 maiatzaren 27 baino lehen (eguerdiko 14:00etan)**, posta elektronikoa, ohiko posta edo web orria erabilita. Horrekin batera curriculuma, lanari buruzko txostena eta gutun labur bat bidali beharko dute lantegian parte hartzeko dituzten arrazoien berri ematen duena.

Parte hartzaileen kopurua gehienez: 15.  
Orduetgia: asteleheneetik ostiralera bitartean 10:00etatik 20:00etara.

Hautaketa lantegiko koordinatzaileak egingo du gonbidatutako artistaren batek lagunduta eta aukeratzen diren pertsonen zuzenean jakinaraziko zaie. Berezi kontuan hartuko da hiru hilabetez jarraian parte hartzeko aukera izatea. Aukeratutako pertsonen ostatu eta egonaldi beka eta lantegia abian egongo den hiru hilabeteetan lana egiteko toki emango die Artelekuk. Materiala ere eskura izango dute, betiere, Artelekuk ezarritako mugen barruan.

Izena:

Abizenak:

Helbidea:

Herria:

Posta kodea:

Telefonoa:

Helbide elektronikoa:

ARTELEKU  
Kristobaldegi, 14 Loiola 20014 Donostia  
T. +34 943 45 36 62 F. +34 943 46 22 56  
e-mail: arteleku@gipuzkoa.net  
www.arteleku.net